

Karmele Muñoa Arrigainek, Bermeoko Udaleko idazkari akzidentalak, ziurtatzen dot, 2022-06-14(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

4.- 2022. URTERAKO UDAL AURREKONTUAN AURREIKUSITA DAGOEN DIRULAGUNTZA NOMINATIBOA BIDERATZEKO, GAZTELUGATXE ALKARTEAGAZ HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

Xedea

2022. urterako udal Aurrekontuan aurreikusita dagoen dirulaguntza nominatiboa bideratzeko, Gaztelugatxe alkarteagaz hitzarmena sinatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2022. urterako udal Aurrekontuan, Gaztelugatxe alkartearen aldeko dirulaguntza nominatiboa aurreikusten da eta, ondorioz, dirulaguntza bideratzeko hitzarmena prestatu da.

Bigarrena: 2022ko maiatzaren 24an, Idazkaritza Saileko teknikariak hitzarmenaren Justifikatze Memoria eta txosten juridikoa emon ebazan.

Hirugarrena: 2022ko ekainaren 1ean, kontu hartzaileak aldeko txostena emon eban.

Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen dauen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Orokorra onartzen dauen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, bere 28.1 artikuluan, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak bere 6. artikuluan eta Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauen 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoak hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimena arautzen dauen 7/1985 Oinarri Legearen 21.1. artikuluan f) eta s) ataletan jasotakoaren arabera, alkateari jagoko, baina 2022ko martxoaren 7ko 703. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.



Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 2022. urterako udal Aurrekontuan jasotzen dan Gaztelugatxe alkartearen aldeko dirulaguntza nominatiboa bideratu ahal izateko, hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen egokiak diran argitalpenak egiteko agindua emotea Idazkaritza Sailari.

BOSGARRENA: Hurrengo O soko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikuluen arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orrri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E60009F2BF00M6J8Q8B4M7Q9

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 14/06/2022
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 14/06/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 14/06/2022
13:48:04

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0134
Data: 24/05/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadae:
Erregistro nagusia

CSV: 07E60009F2BF00M6J8Q8B4M7Q9

